

# ERASO! “Erantzunik Gabe”

## erantzunik gabe

nire baitan  
erantzunik gabe  
hainbeste buruhauste  
arazo asko dakartzate  
zerbait falta dudala ,zerbait falta dudala  
jakin badakit ,baina, ezin bete zulo hori  
hutsune bat  
nire baitan  
erantzunik gabe  
hainbeste galdera  
bira ta bira dabiltzala  
jakin eta ezin ezertxo ere egin  
jakin eta ezin ezertxo ere egin  
erantzunik gabe!!!  
hutsune bat  
bada momentu bat  
bilutsik zauden hura  
non eta , hutsik sentitzen haizena  
erantzuna , bizitza bezain ulertezina da  
galdera, guztiok sentitzen dugun beharra  
erantzunik gabe  
gabe

## fedea faltsua

urteetan zehar gizonak , zerbaitengan sinistu  
behar.  
beraien bizitzan hari zuzentzailea izan den,  
erlijioan.  
gizonak sinistekotan beregan `ta beraz  
daudenengan  
zuga ez baduzu sinisten , erlijioak fedea  
lapurtuko dizu `ta.  
fedea lapurrek  
fedetasuna gauza ederra da  
baina ez dut nahi neure kanpo izan gauzak  
aldatzekotan engainatu dituzten guztiak  
ohartarazi nahi nituzke beraien delituaz  
fedea faltsua  
betidanik engainatua sentitua  
izateko arrazoiak baldin badituk  
ez hadi makutu , begiratuzak beti aurrera  
eta ez ahaztu izan hadi hire bizitzaren  
fededuna.  
fedea lapurrek, fedea faltsua.  
erlijioak erabili egin gaitu  
jadanik, nahiko kalte eragin du.  
askatasunaren fededuna.  
amodioaren fededuna.  
gorrotoaren fededuna  
eguneroko bizitzaunzen fededuna.

## aldeginda

ez da zaila , boterea eskuan izanda,  
nork ,atera behar duen ,galtzaile jakitea.  
betikoak, inori kalte egiten ez diotenak.  
betikoak, mixerian bizi diranai.  
betikoak, gehien galdu behar dutenak.  
betikoak, ilusio handienak dituztenak. beti  
pentsatu arazi nau  
nolan boterea eskuan izanda  
kalte egitekotan , xumea izango dela  
gehien jasan beharko duena.  
ez da zaila , boterea eskuan izanda,  
nork ,atera behar duen ,galtzaile jakitea.  
aldeginda, hainbeste lagun utzia.  
aldeginda, jaioterrik bidailia.  
aldeginda, gogoz kontra utzi behar.  
aldeginda, erreffuxiatu modura.

## nork mugitzen gaitu?

ez dut ulertzen zeure itxutasuna  
molde baten barruan ez bada,  
ez duzu onartuko, zeren inposatu diren

legeak ez dira.  
mundu guztiko gay lesbianek  
eskubide berdinak izan behar dituzte  
zu bezalako hipokritek  
hainbat oztopo jartzen dizkiete  
mesedez e`hizkiak potroak ikutu  
mesedez ireki itzak begiak beingoz!!  
hainbeste urtetan  
ezarri zaizkigun kriterioak  
aldu beharrean gaude  
ezin dugu, ezin dugu?edozein motatako  
oztopoak gaintzeko  
ez dute ixiltzeko astirik emango  
beraiek sinisten duten gauzen arabera  
lortu behar dute , lortu behar dugu!!

## gure bizitza

goizian goiz jaiki urduritasuna,  
zerua zartatua `ta hotz freskoa,  
kentzen ez den korapilo astuna, sabelean,  
kontzertuaren eguna heldu da.  
musika tristezt kotxe barruan,  
euriak gogor astintzen du,  
bista-alegretik atera `ta bagoaz, hara nonbait  
gure kotxe `ta trastu zaharrez.  
gaua berotzen hasi da  
eskenatoki gainean gaude `ta  
burua musikaz blai, egan da  
jesisteko intentziorik gabe gaude `ta  
egan hasi gara  
egan, egan , egan,...  
hau da gure bizitza  
hau da benetan  
heldu da garaia `ta itzuli behar  
ikusit `ta ikasi ditugun gauzak buruan biraka  
biraka?..  
bizitzari zentzu bat ematen jakin!.

## bai, zein haiz?

hire esku zegok nire aholkua haintzat hartzea  
hire baitan  
bai zein haiz?  
ni neu naiz (4)  
asteburu oro  
pilulak jaten  
nolan bukatu behar dek  
errepidean ez bada,burutik joanda?  
ez ahal zaraz nitaz gogoratzen  
txiki-txikitatik ezagutzen ginen  
denbora asko pasa dugu juntu  
ordu asko dira `ta altxor modura gorde ditutneu  
naiz!!!! (4)  
ez dakit zein den hori (8)

## zein gogorra

gaur ez da pasa `ta  
gaur ez dut ikusi  
kale ilun honen taupada  
gaur ez dut entzun  
zure ahotsik  
nire leihotik szrtzen  
zein gogorra egiten zaizun bizitza  
zein gogorra  
non geratu da  
kale honi kolore ematen zion neskatxa polit  
hori  
nork gau hontan bere zerbitzuengandik  
poltsikoak hustu ditu, hustu!  
zein gogorra , egiten zaizun bizitza  
zein gogorra  
zu berriro ikusteko gogoak lditut dagoeneko  
zu berriro ikusteko irrikatzen nago honezkero  
zu, zu , zu berriro!  
zu, zu ikusteko !  
zein gogorra, egiten zaizun bizitza  
zein gogorra

## eskale baten memoriak

eguzkia sartzen hasten denean  
leku apropos baten bila hasten zara  
haize hotz honen babesle izan zaitez, gau  
batez  
gaur besterik ez da izango  
behin besterik ez  
zubi honen azpian  
euri zakar honen babesian,  
bakardadearen desertuan galduta egoteak  
`ta inori esplikaziorik eman ez izanak  
edozein bide hartzeko aukera ematen dit  
,ematen  
eta inor atzean utzi gabe  
behin besterik ez  
zubi honen azpian  
`ta ikusiko dek nola den  
kaleetan barrena sartzen naiz  
norabiderik ezean , bideak aukeratuz,  
hori da askatasunez eraikitzen dudana bidea  
nirezako dudana gauza bakarra, nirea den  
gauza bakarra.  
behin besterik ez  
zubi honen azpian  
euri zakar honen babesean  
babesean babesean babesean bai  
babesean

## droga merkea

hi, txo!  
zertan hago  
horra begira? denbora galtzen  
esnatu hadi!  
ez al duk entzuten  
inguruan duan iskanbila?  
begiratu zak lehiotik  
kalean dagoen mobida.  
droga gogorra `ta merkea !!!  
arratsaldeko hirurak dira,  
telebista piztera noa,  
gure berri ematera doaz  
euskal herriaren irudia ?gorrotoa gure artean  
zabaltzeko ahalegina  
beraien interesak defendatzen  
droga gogorra `ta merkea  
hi , txo ! zertan hago!!!!

## tristura barruan

tristura barruan  
ezin kendu  
depresioa mantendu  
... bizirik irauten dut!!!  
izuri ditut malkoak  
zertarako?  
ezin dut gehiago jasan  
... bizirik irauten dut!!!  
zorientasuna bilatzen  
autoestima bultzatzen  
nola erori ninteke ni hain baju  
nola erori ninteke ni hain baju!  
atsekabetzen hasten naiz  
jende askok eskuartean duenaz  
balore xixtrin bat`e ez dute tente utzi  
balore xixtrin bat`e ez dute tente utzi  
bizitzak heriotza dakar  
sarritan ahazten duzu `ta  
bizitzak balore batzu ditu  
sarritan ahazten dituzu  
bakarrik sentitzeak  
etorkizuna?  
postura intimista  
...bizirik irauten dut